

## BERTSO BERRIAK 2 URTEKO GELAKO BATEK JARRIAK

2 urteko geletako musika proiektua dela eta, ikasturte amaieran, Urmendira haur baten gurasoak eta osaba etorri dira biolina, gitarra eta perkusio kaxa hartuta. Festa giroan haiek musika jo eta guk abestu, giro politean pasa dugu uztaileko goiz hau. Sorpresatxo bat eman digute gainera, hurrengo bertso sorta ekarri baitute denon artean kantatzeko.

Mila esker familia!!!!!!

1.  
Goizian atta dator  
esnatu beharko  
presa duelako  
etzait gustatu, egin  
beharko diot planto  
kasketa eta laineza  
gosaritarako  
errekamaran gorde  
lau tipula malko...  
gaur ere ez gara helduko  
beatzitarako

2.  
Ta nere eskola da  
modernoezia  
hori da egia  
jolas heuristikotan  
jarri du begia  
kate zahar bat, lau pintza  
ta kartoi erdia  
emanda egiten dut  
arte-galeria  
sormenerako ona  
baita mixeria

3.  
Buruhandi ta hainbat  
txistulai ilustre  
kolpe batzun truke  
Intxixuak hobeak  
direnik ez uste!  
Bakarrik ditugu bi  
edo hiru urte,  
haiekin jolastera  
bidaltzen gaituzte,  
ta gero maitasunaz  
hitz egiten dute

4.  
Bazkaltzeko garaian  
babarrun platerka,  
pure nahiz kroketa,  
eskolan den bale  
etxean dieta.  
Paladar finekoa  
nauzue, puñeta!  
nire nahia betetzen  
ez da errez-eta,  
Martak eta Igorrek  
dute errezeta

5.  
Tripa ongi beteta  
kuluxka hurrena,  
hori da ordena,  
a ze pazientzia  
andereñoena,  
Benitoren CDak  
duen ahalmena,  
baretu zait lehenago  
nuen bolumena  
gurasoak heltzean  
bueltatuko dena

6.  
Arratsaldez merienda  
hartu eta korri  
parkera etorri  
nik komuna hippiya  
deitzen diot horri  
amak dio den-dena  
uzteko elkarri  
nire moto berriya  
hartu dute sarri...  
badaezpada eztu  
beria ekarri

7.  
Bukatu da eguna  
hartu diot usai  
ta ez nago lasai  
eguna pasatu dut  
momentu honen zai...  
Aita zurekin lo ez,  
deituiozu amai,  
karrerillan esanda  
40 "ez dut nahi"  
borroka irabazi dut  
ta gerra ere bai

**2016ko uztailaren 11ean  
Izaskun eta Asier, Jakesen  
gurasoak eta  
osaba Jon**